

Gero eta emakume gazte gehiagok uste dute lana eskuratzean sexuagatiko diskriminazioa dagoela

Neskak mutilak baino gehiago arduratzen dira oraindik etxeko lanaz

[Emakumeen Nazioarteko Eguna](#) (martxoak 8) dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) emakume eta gizon gazteen arteko ezberdintasunei buruzko datu batzuk plazaratu nahi ditu. Datu horiek lana eskuratzeko eta etxeko lanak banatzeko desberdintasunei buruzkoak dira.


Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2012an 15 eta 29 urte bitarteko 750 neskari eta 750 mutili eginiko inkesta batetik datoz.

Inkesta horretan gazteei lanpostu bat eskuratzeko prozesuan zeudela imajinatzeo eskatu zitzaizen. Lanpostua beren ikasketa eta prestakuntzari egokituta zegoen eta hautaketa prozesuan lehiakidea beren adina, prestakuntza eta esperientzia berdina zuen mutila edo neska zen (gazte bakoitzari beste sexuko lehiakidea zela esan zitzaion). Inkestatuei zein zeukan aukera gehiago lanpostua eskuratzeko galdetu zitzaizen: mutilak, mutila izateagatik, neskak, neska izateagatik, edo uste zuten sexuak ez zuela inolako eraginik kasu horretan.

Mutil eta neska gehienek uste zuten hautagaien sexuak ez zuela eraginik; hala ere, mutilek neskek baino neurri handiagoan zioten hori (% 64 eta % 57, hurrenez hurren).

Bestalde, nesken % 28k uste zuten mutilak berak baino aukera gehiago zituela, mutila izateagatik, eta gaiza bera zeritzoten mutilen % 18k ere.

Bakarrik nesken % 9k eta mutilen beste horrenbestek (% 9k) uste zuten neskak aukera gehiago izango zituela, neska izateagatik.




Nesken pertzepzioak txarrera egin du [2008](#)tik 2012ra, 2008an % 23a osatzen baitzuten gizonak aukera gehiago zituela uste zuten emakume gazteek. Esan daiteke, beraz, lana eskuratzean sexuagatiko diskriminazioa dagoela uste duten emakume gazteen ehunekoa bost puntu igo dela lau urte hauetan.

Aitzitik, gizon gazteek beren aldeko desberdintasun gutxiago antzematen dute orain (% 19) lehen baino (% 23), eta 2012an 2008an baino apur bat gehiago dira emakumeek gizonak baino aukera gehiago dituztela deritzoten mutilak (% 9 eta % 6, hurrenez hurren).

Bestetik, inkesta horretan bikotekidearekin (ezkonduta zein ez) bizi ziren gazteei zera eskatu genien: azaltzea nola banatzen zituzten bikotekideak eta berak etxeko lanak, hala nola, garbitzea, janariak prestatzea, erostea, e.a.

Bikotekidearekin bizi ziren emakume gazteen % 40k adierazi zuten beraiek egiten zituztela etxeko lan guztiak edo gehienak; % 45ek erdi bana egiten zituztela zioten eta bakarrik % 1ek esan zuen bikotekideak egiten zituela.

Bikotekidearekin bizi ziren mutil gazteen artean, aldiz, % 26k aitortu zuten beren bikotekideak egiten zituela etxeko lan guztiak edo gehienak, % 51k bien artean egiten zituztela esan zuten eta % 8k beraiek egiten zituztela adierazi zuten.



Aipatzekoa da bai mutilek bai neskek diotela neskek lan gehiago egiten dutela etxe barruan. Baina mutilen artean nesken artean baino gehiagok diote mutilek ere egiten dituztela etxeko lanak, bikotekidearekin banatuta edota bakarrik. Hau da, etxeko lanen banaketa dela-eta, desberdina da gizon eta emakume gazteen pertzepzioa edo aitormena.

Gauza bera gertatzen zen 2008an; orduan ere askoz handiagoa zen mutilen artean (% 64) nesken artean baino (% 48) etxeko lanak bien artean egiten zituztela ziotenen ehunekoa.

Beraz, lan handia dago egiteke, bai neskek bai mutilek esaten baitute baldintza berdinetan mutilek aukera gehiago dituztela lana eskuratzeko, eta etxeko lanetan neskek zama handiagoa jasan behar dutela.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

